

# PLASTIKA ADIERAZPENAREN GARAPENA ETA BERE DIDAKTIKA

## HAUR HEZKUNTZA

Irakaslea: Amaia Montorio

2007/2008.eko ikasturtea

---

### **Helburuak**

- Plastika Adierazpena eta Arte Hezkuntzaren inguruko kontzeptuen ezagupena
- Ikus ingurutik datozkigun mezuen aurrean sentikortasuna eta pertzepzioa gehitzea.
- Arte Hezkuntzak dituen ahalbide didaktikoez hausnartzea.
- Sormena, pentsamendu dibergentea eta ikus problemak burutzeko gaitasuna garatzea.
- Ikus mezuen irakurketa kritikorako eta produkzio autonomorako gaitasunak eskuratzea.

### **Edukinak**

- 1.- Arte Hezkuntza Haur Hezkuntzan.
- 2.- Reggio Emiliako proiektu pedagogikoa.
- 3.- Haurren garapen grafikoa.

### **Metodologia**

Planteatuko den lan egiteko modua talde lana izango da, 3/5 partaideekin osatua. Talde hauek ikasleen interesen arabera osatuko dira.

Klase teorikoak eta praktikoak burutuko dira. Materialak eta irudiak taldekideek lortu beharko dituzte. Irakasgaia gainditzeko, lanak entregatzeko epeak errespetatu beharko dira.

Taldeek egindako lanak ikaskideen aurrean erakutsiko dira.

Landuko diren lan esparruak:

- 1.- Arte hezkuntzan erreferente pedagogiko garrantzitsuenak ezagutuko dira. Honekin batera, gaur egungo egoerari begirada kritiko bat zuzentzen saiatuko gara. Horretarako ikasleek aurreko hilabetean praktikan izandako denboran ikusitakoaz hausnartuko da. Gidoi bat banatuko da, eta taldeetan, ideia nagusiak jasoko dira idatziz.

2.- Bigarren atalean proposatzen den metodologiarako klabeak eskuratzea izango da helburua. Ikasleei, **3 proiektu praktikoak** lantzea eskatuko zaie. Proiektu hauek planteatzeko irizpide ezberdinak hartu dira kontuan:

- ikasleei ikasgeletan moldatzeko ideiak ematea
- proposatutako ariketetan norberaren mugak detektatzea
- arte hezkuntzari dagokionez aurreiritziak apurtzea eta irudimena lantzea.
- ikus kontzeptuekin lan egitea

3.- Azken atalean haurrek sortutako marrazkien mundura hurbiltzea izango da helburua. Ezaugarri orokorrenak bereiztea eta egile ezberdinek haurren marrazkiak interpretatzeko erabilitako irizpideak ezagutzea bilatzen da. Ikasleen partetik hainbat marrazki aztertuko dira eta gidoi bati jarraituz hautatutako marrazki batzuei buruzko iruzkin idatzia entregatu beharko da.

## **Ebaluaketa**

Oinarrizko baliabide metodologikoak, klase teorikoak, elkarrizketak, eta taldeko zein banakako lanak izango dira. Kontzeptu teorikoak garatzeko oinarrizko apunteak eta proposatutako bibliografia erabiliko dira.

Ebaluaketarako, aurkeztutako lanak hartuko dira kontuan. Egindako lanetan ebaluatuak izango diren zenbait aspektu, hauexek izango dira: aurretik jarritako ezaugarriei eta baldintzei egokitzea, lanaren prozesua, ikus problemen burutzapena (ordenaketa, garbitasuna, itxura) eta orijinaltasuna.

Ikasleek, honako bi motatako ebaluaketa moduen artean aukera dezakete: **ebaluaketa jarraitua** edo **azken froga**.

### **Ebaluaketa jarraitua**

- Irakasleak jarritako ebaluaketa datak errespetatuak izan behar dira.
- Kurtsoaren amaieran, **lan guztiak** proposatutako epeetan entregatuak eta zuzenduak egon behar dira.

Ikasleren batek ebaluaketa jarraiturako ipinitako baldintzak beteko ez balitu, azken froga egitera pasako da.

### **Azken froga**

- Unibertsitateak jarritako data ofizialetan egingo da: Otsaila, Ekaina zein Irailean.

- Azterketa egunean, ikasleak kurtso horretarako ezarritako lan guztiak entregatu beharko ditu. Honez gain, irakasgaiaren programari buruzko **froga idatzia** egingo da.

## **Bibliografia**

ANALISIS DE LA EXPRESION PLASTICA DEL PREESCOLAR. Rhoda Kellog, Biblioteca de psicología y educación. Cincel-Kapelusz. Madrid 1981

EL COLOR DE LOS PENSAMIENTOS Y DE LOS SENTIMIENTOS. Nueva experiencia de educación artística. Francesco de Bartolomeis. Ediciones Octaedro. Barcelona 1994

LA EDUCACIÓN VISUAL Y PLASTICA HOY. Educar la mirada, la mano y el pensamiento. J.Caja (coord). Editorial GRAO. Barcelona 2001

HACER PLÁSTICA. Un proceso de diálogos y situaciones. Eulália Bosch, Carme Cols, Montserrat Nicolás, Lluís Vallbé, Georgina Vila, Soledat Sans. Ediciones Octaedro- Rosa Sensat. Temas de infancia nº 7. Barcelona 2002

EL ARTE Y LA CREACION DE LA MENTE. El papel de las artes visuales en la transformación de la conciencia. Elliot W. Eisner. Paidós Arte y Educación. Barcelona 2004

REGGIO EMILIA (Italia) 0-6 URTE BITARTEKO UDAL HAUR HEZKUNTZA. Hik Hasi 19.monografikoa. 2007ko urria

